

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

324/2017 Foru Agindua, azaroaren 13koa, behin betiko onartzen duena baldintzekin Iruña Okako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, Olabarrin dauden 2 poligonoko 594 eta 595 lurzatien eta haien jarraian dagoen espazio librearen kalifikazioa komunitate ekipamendu orokorreko kalifikaziora aldatzeari buruzkoa

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Iruña Okako Udalak 2017ko maiatzaren 25eko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteari, zeina baita Olabarrin dauden 2 poligonoko 594 eta 595 lurzatien eta haien jarraian dagoen espazio librearen kalifikazioa komunitate ekipamendu orokorreko sailkapena aldatzeari buruzkoa. Hala, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOn (64. zenbakia), 2017ko ekainaren 7an, "El Correo" egunkarian, 2017ko ekainaren 7an, eta udalaren iragarki oholean; horrez gain, lurraldez eragindako administrazio batzarrari jakinarazi zitzaion.

Bigarrena. Jendaurreko informazio aldian, ez zen alegaziorik aurkeztu; beraz, udalak, 2017ko irailaren 13ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 255/2017 Foru Aginduaren bidez, zeina 2017ko irailaren 22ko ALHAOn (109. zk.) argitaratu baitzen, aldeko irizpena eman zitzaion ingurumen txosten estrategikoari, zenbait baldintzapetan, ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Sustapen Ministerioko Hegazkintza Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak espediente horren aldeko txostena bidali zuen 2017ko abuztuaren 17an.

Bosgarrena. Iruña Okako Udalak espedientea bidali zuen, behin betiko onartu zedin. Espediente hori 2017ko irailaren 28an sartu zen AFaren erregistro orokorrean.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Olabarriko Administrazio Batzarrak sustatu duen espediente horren xedea da Iruña Okan indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioak aldatzea, 2 poligonoko 594 eta 595 katastro lurzatiei dagokienez, zeinen jabetza administrazio batzarrarena berarena den, baita haien inguruan dauden espazio libreei dagokienez ere.

Egin nahi dena da berriz ere kalifikatzea egun gizarte etxeko tokiko sistema gisa kalifikatuta dauden lurzatiak eta haien jarraian dagoen erabilera publikoko espazio libreko tokiko sistema, eta kalifikazio hori komunitate ekipamendu orokorreko tokiko sistema izatea. Horretarako, berariaz idatziko den araudi bat ezarriko zaie.

Berriz ere kalifikatzearen ondorioz, eta espazio libreko tokiko sistema kentzea konpentsatzeko, proposatzen da kalifikazio hori ematea jatorrizko espazio librearen jarraian dagoen bidearen beste aldean dagoen zona bati, zeina ez baita katastro lurzatia.

Bigarrena. Agiri teknikoak aldaketa hori egin beharra justifikatzen du, aukera egon dadin handitzeko Olabarriko Administrazio Batzarraren oraingo gizarte etxea, azken hamar urteotan gero eta gehiago diren herritarren premiei erantzun nahi baitzaie, irisgarritasun eta energia efizientzia baldintza onetan.

Hirugarrena. Agiria aztertu ondoren, uste da behar bezala justifikatu direla egin nahi den aldaketaren komenentzia eta egokitasuna.

Hala ere, badira agiri teknikoan zuzendu behar diren zenbait alde. Honako hauek dira:

1. Nola indarrean dauden arau subsidiarioek ez duten komunitate ekipamenduko tokiko sistema arautzeko araudia, aldaketak proposatzen du osatzea Olabarriko R-1 eremuaren erregulazioa, zeina garatzen baita "Olabarri. Egoitzatarako lurzorua. Zuzeneko antolamenduko eremua" 191. artikuluko "R-1 eremua" 191.1 idatz zatian. Edonola ere, nahiz eta egia den beharrezkoa dela araudia ezartzea, proposatzen den ekipamendu orokorreko tokiko sistema berria arautzeko, garrantzitsua da hori egitea halako moldez non modu koherentean lotu behar zaion arau subsidiarioen gainerako araudiari.

Horiek horrela, ez dirudi egokiena denik araudi berria sartzea aldatuz R-1 eremu guztiari buruzkoa, han baimendutako erabilera gisa planteatuta komunitate ekipamendu orokorra; izan ere, hala eginez gero, R1 gisa kalifikatutako herriko lurzati guztiei aplikatu ahalko litzaieke, eta ez dirudi hori denik aldaketaren xedea.

Aitzitik, berariazko atal batean sartu beharko litzateke, barne hartzen duena hirigintza eta eraikuntza parametro guztien erregulazioa, eta erregulazio hori lurzati jakin batzuei baino ez zaie aplikatuko; hain zuzen ere, tokiko sistema-ekipamendu orokorra kalifikazio xehatua daukaten lurzatiei, eta erregulazio hori modu koherentean lotu behar zaio gainerako araudiari.

2. Espazio libre berrirako proposatu den antolamenduari dagokionez, haren jarraian dagoen 2 poligonoko katastroko 590 hiri lurzati ez eraikia lurzatiaren aurrealderik gabe geratzen da, eta ibilgailuentzako sarbiderik gabe, eta haiek egon beharra daukate, 2/2006 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru eta hirigintzarenak, bere 11. artikuluan xedatzen duenez, eraikita ez dagoen lurzoru bat hiri lurzoru gisa sailkatzeko, eta hori konpondu egin behar da.

3. Agiriaren memoriaren 4. idatz zatiaren bukaeran jasotzen den espazio libreen konpentsazioaren justifikazioa nahasgarria da; aurreko idatz zatian adierazitakoa kontuan hartuta idatzi beharko da, hau da, ezabatzen den azalera eta proposatzen dena argi eta garbi kuantifikatuta, halako moldez non egiaztatu daitekeen benetan konpentsatzen dela.

4. Proposatutako agiriak ez du aldaketaren eraginpeko araudiko artikuluko guztien testu osoa jaso, nabarmenduz aldatu, ezabatu edo gehituko diren aldeak, ezta indarrean dagoen bertsioan edota proposamenean ere, eta hori zuzendu egin behar da.

5. Aldatutako O-03 planoari dagokionez, nola ekipamenduen tokiko sistema gisa kalifikatuta dauden espazioak, hain zuzen ere, eliza eta komunitate ekipamendu orokor berria, elkarren ondoan dauden, eta bilbe berarekin grafiatu diren, ezinezkoa da bereiztea bien arteko muga, eta hori konpondu egin behar da.

6. Planoetan argi eta garbi islatu behar da aldaketaren eremua.

7. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, agiri guztiak, txosten honetan adierazitako baldintzen arabera zuzendurik eta betetik, *.pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan aurkeztuko dira; planoak, bereziki, *.dwg luzapeneko fitxategietan aurkeztuko dira -*.ctb (arkatzak) fitxategiak ere bai haiekin- edo *.shape fitxategietan, eta testua *.doc edo docx. luzapeneko fitxategian.

Laugarrena. Hirigintza agiriaren memorian, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2017ko irailaren 4n emaniko ingurumen txosten estrategikoan ezarritako baldintzak jaso dira, arkitektura eta arkeologia ondare historikoan sor daitezkeen eraginei erantzunez.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Iruña Okako planeamenduko arau subsidiarioen al-daketa puntualaren espedientea, Olabarrin dauden 2 poligonoko 594 eta 595 lurzatiei eta haien jarraian dagoen espazio librearen sailkapena komunitate ekipamendu orokorreko kalifikaziora aldatzeari buruzkoa. Hona hemen bete beharreko baldintzak:

1. Berariazko atal batean sartzeari buruzko erabakia eta erakuntza parametro guztien erregulazioa, eta erregulazio hori lurzati jakin batzuei baino ez zaie aplikatuko; hain zuzen ere, tokiko sistema ekipamendu orokorra kalifikazio xehatua daukaten lurzatiei, eta erregulazio hori modu kohe-rentean lotu behar zaio gainerako araudiari, halaxe jartzen baitu hirugarren oinarrian.

2. Proposatutako antolamendua espazio libre berriarentzat egokitzea, halako moldez non haren jarraian dagoen 2 poligonoko 590 katastro lurzatiak aurrealdea eta ibilgailuentzako sarbi-dea izango dituen.

3. Agiriaren memoriaren 4. idatz zatien bukaeran jasotzen den espazio libreen konpen-tsazioaren justifikazioa aldatzea, aurreko idatz zatian adierazitakoa kontuan hartuz; hau da, ezabatzen den azalera eta proposatzen dena argi eta garbi kuantifikatuta, halako moldez non egiaztatu daitekeen benetan konpentsatzen dela.

4. Agiria osatzea aldatutako eraginpeko araudiko artikuluko guztien testu osoarekin, nabar-menduz aldatu, ezabatu edo gehituko diren aldeak, bai indarrean dagoen bertsioan bai pro-posamenean.

5. Argi eta garbi mugatzea komunitate ekipamendu orokor berria O-03 plano aldatuan, ha-lako moldez non bereziko den haren jarraian egon eta eliza gisa kalifikatua dagoenetik.

6. Planoetan argi eta garbi islatzea aldatutako esparrua.

7. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, agiri guztiak, txosten honetan adie-razitako baldintzen arabera zuzendurik eta betetik, *.pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan aurkeztuko dira; planoak, bereziki, *.dwg luzapeneko fitxategietan aurkeztuko dira -*.ctb (arkatzak) fitxategiak ere bai haiekin- edo *.shape fitxategietan, eta testua *.doc edo docx. luzapeneko fitxategian.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espe-dientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezten eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 13a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO